

Hiriko irteeretan bidegorriak egiteko hitzarmena adostu nahi du Aldundiak

Mugikortasuna » Hirira sartzeko errepideetan txirindulariek bizia arriskuan jartzen dutela adierazi du Kalapiek.

XABIER ETXABE

Europako Mugikortasunaren As-tean bete-bete gaudela, autoa etxean uzteko alternatiba nagusian bilakatzen ari da bizikleta. Nabarmena da erakundeak ibilgailu honen alde egiten ari diren apustua. Hala, Foru Aldundiak herri desberdinak lotzen dituen 77 kilometroko bidegorri sarea zabalik du dagoeneko eta datozen zortzi urtetarako beste 133 kilometro eraikitzea du jomuga.

Kilometro horietako asko Donostiako lurretan zabaldu nahi ditu Aldundiak. Hain zuzen, hiriko sarrera irteerak marra gorritz margotu nahi dituzte. Horretara-



Azterketa zorrotza igaroko dute gaur bidegorriak. R. PEREZ

ko, datorren astean Udalarekin bilduko direla aurreratu du Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorrek diputatuak. Hiriko bidegorri sarea Pasaiakoarekin eta Lasartekoarekin lotzeko proiektuak bideratzen hasi nahi du Aldundiak eta, horretarako, Udalarekin hitzarmena adostu nahi du. Bidegorri sarea zabaltzea ere Udalaren lehentasunetako bat den arren, krisiak

proiektu honen partaidetza baldintza dezakeela esan du Maravi Dafaue Mugikortasun zinegotziak.

Kalapie elkarteak Higinio Otazuk, era berean, txirindularientzako bideak sustatzeko garrantzia azpimarratu du, eta Donostiako sarrera irteeretan bidegorriak eraikitzeak duen garrantzian egin du indar, batik bat. Errepide haue-

tan txirindulariek bere bizia jokoan jartzen dutela zehaztu du Otazuk. «Auto istripuetan hildakoen kopuruak behera egin duelako Trafiko Zuzendaritza harro dagoen arren, errepideetan hil den txirindulari kopuruak %17 egin du gora». Gipuzkoarren %60a Donostialdean pilatzen dela kontutan hartuz, hirira heltzeko bidegorriak lehentasun bilakatu behar direla adierazi du Kalapieko kideak.

Martutene-Astigarraga, erabilienetakoa

Bestalde, Martutene eta Astigarraga lotzen dituen bidegorria erabilien artean dagoela azpimarratu dute Aldundiko Garapen Iraunkorrek kideek. Emandako datuen arabera, 959 erabiltzaile dabilte egunero bidegorri horretatik. Ne-guan, bidegorritik aurrera eta atzera dabilten artean, laurdena dira txirindulariak. Udan, %40a dabil bizikletaz.

Bidegorriak aztertzeke txangoa, 11:00etan

Irteera » Argazki kamera hartuta, bidegorrien azterketa egin nahi duen oro hurbil daiteke Kursaal atzealdera.

X. E

Hiriko bidegorrien azterketa sakona egiteko aukera izango dute gaur txirindulariek. Talde desberdinetan elkartuta, gaur, 11:00etan Kursaal atzealdera hurbiltzen diren txirindulariak hiriko bidegorrietako ikuskatzaile bihurtuko dira.

Beste bidegorri batzuetan ezartzeke onuragarriak direlako edo aldatzeko premia duten ahuleziak dituelako, xehetasun guztiak argazki kameran jasotzeko ardura izango dute egun batez mugikortasun teknikari bilakatuko diren txirindulariak. Argazki kamerarik ez dutelako, irudi bildumarik egiteko moduan ez direnek ere, oharrak hartuz, gaurko txangoan parte hartzeke aukera izango dute, halaber.

Gaur egindako argazki eta hausnarketa guztiekin Cristina Enea Fundazioko behatokiak txostena osatuko du.

X. E

Abuztu hasieran ireki zuten Morlanseko tuneletik barrera igarotzen den bidegorria. Aldaparik igo eta jira bueltarik egin gabe, Amaratik Antiguara ala kontrako bidea egiteko biderik azkarrena eta erosoena da. Bidegorriak, ordea, txirrintentzat bakarrik du lekua, oinezko askorentzat ere tentagarria bada ere.

Bigarrenaldia da PPK Morlanseko bidegorriak oinezkoentzat ere lekua izango duen galdetzen duela. Mara-

Morlanseko bidegorrian oinezkoak sartzetik izango duten jakin nahi du PPK

vi Dafaue Mugikortasun zinegotziak, ordea, irtenbide zaila duela aipatu du. Izan ere, tunelaren zabalerak ez du oinezkoak eta txirindulariak sartzeko adina lekua. «Irtenbide zaila duen arren, eskaera aztertuko dutela», aipatu du Dafauek.

PPK, bestalde, Morlanseko bidegorriaren bi alboetan dauden zuloak izan ditu hizpide. Bi zulo horiek txirindulariak muturrez aurrera erortzeko arriskutsuak izan daitezkeela adierazi dute.

Hiperaktibitatea eta arreta defizita duten gaixoak laguntzeko festa, bihar

X. E

Geldirik egoteko gai ez diren haur ugari edo eskolan arretarik jartzen ez duten ume askok, bihurri baino, hiperaktibitate eta arreta defizit gaixotasuna dute. Munduan haurren %3 eta %7 artean eragiten die eritasun honek eta helduen, %4ari.

Herritarrek buruko gaixotasun honen inguruko nondik norakoak ezagutu ditzaten, Gipuzkoako Arreta Gabezia eta Hiperaktibitatearen Elkarteak festa antolatu du bihar Alderdi Ederren. Gaixotasunaren berri emateaz gain, jolasak eta bestelako jarduerak antolatuko dituzte.

Hizkuntzen Europako Eguna dela-eta, hainbat jarduera antolatu dituzte

ERREDAKZIOA

Irailaren 26an ospatzen da Europako Hizkuntzen Eguna eta, horretatik, Lacunza hizkuntza eskolal hainbat jarduera antolatu ditu Donostia 2016 bulegoaren laguntzaz.

Ekitaldi sorta astelehenean hasiko da, bi hitzaldirekin. Asteartean frantsesak izango du nagusitasuna Nikolas Txikiaren inguruko bitaier antolatu baitituzte. Asteazkenean, Euskal Herriko hizkuntza aberastasuna izango dute hizpide. Ostiralean eta larunbatean, zenbait hizkuntzetan murgiltzen hasteko aukera eskainiko dute.

TAO kontratuak luzatzean epeak bete ez dituztela onartu du Gobernuak

ERREDAKZIOA

Udal Gobernuak irailaren 4ean erabaki zuen Antiguan, Amaran eta Grosen TAO zerbitzuaren jarraipena egiteko ardura duen enpresari kontratua luzatzea. Luzapen hauetan irregularitasunak zirela salatu zuen EAJK, Udal Gobernuaren berrespenak behin iraunaldia gaindituta gauzatu zutelako.

Salaketa honen aurrean, Udal Gobernuak egindako hanka sartzeari aintzat hartu du Maravi Da-

faue Mugikortasun zinegotziak eta epeak bete ez dituztela onartu du.

Era berean, TAO zerbitzua kudeatzeko kontratazioa egiten denean hamar urterako egiten dela azaldu dute Mugikortasun saileko arduradunek. Dena den, lehenengo bost urteak igaro ondoren, hurrengo bost urteetan, kontratua urte urte luzatu behar dela zehaztu dute. Luzapen hauek, dena den, garaiz egin ez dituztela adierazi dute.

EUSKARA MON AMOUR!
BIZI EZAZU ZURE ABENTURA EUSKARAREKIN. MATRIKULA ZAITEZ EUSKALTEGIAN!

Javier
DONOSTIA 29 URTE 1.60

Leire
DONOSTIA 26 URTE 1.60

EUSKARAREN
MIRA
DONOSTIA

Informazio gehiago:
www.e-monamour.com